

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

4994

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 3koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egiteko dena.

Deialdia Segurtasuneko sailburuordearen eskaerari jarraikiz egin da, bat dator Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abenduaren 26ko 104/2024 Ebazpenaren bidez onartutako 2024ko enplegu publikoaren eskaintzarekin (abenduaren 31ko EHAA, 253. zk.) eta arau hauetan xedatutakoaren arabera egiten da: 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa; 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testuategina onartzen duena, eta 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duena, eta hari egindako aldaketak.

Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Kontseilu Errektoreak ere onartu du.

Hori guztia oinarri hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egitea erabaki du, oinarri hauen arabera:

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.— Deialdiaren xedea.

Hautaketa-prozeduraren deialdia egiten da, oposizio-lehiaketa irekiaren bidez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agenteen lanpostuak betetzeko (C taldea, C-1 azpitaldea, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna). Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira hautaketa-prozeduraren barruan.

Deialdian, 150 lanposturen deialdia egin da; guztiek dute esleitura Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna (Administrazioaren 2. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea), eta 120k dute derrigortasun-data igarota.

Deitutako lanpostuen kopurua handitu ahal izango da, baldin eta Ertzaintzako agenteen kategoriako lanposturen bat bete gabe geratu bada Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingo Zerbitzuetako Oinarrizko Eskalako agentearen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdian. Deialdi hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2025eko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez egin zen (2025eko martxoaren 20ko EHAA, 55 zk.).

Kopuru handitze hori hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratu beharko da, hamaikagarren oinarrian aurreikusitako izapidea egin aurretik.

Bigarrena.— Parte hartzeko betekizunak.

1.— Prozeduran parte hartu nahi dutenek, onartuak izan nahi badute, betekizun hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Aldez aurretiko eskabidea egitea.

- b) Espainiako nazionalitatea izatea.
- c) 18 urte izatea eta 38 urte bete gabe izatea; muga hori Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan emandako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.
- d) Batxilergoko titulua edo baliokidea izatea, edo goragoko beste edozein.
- e) Ez egotea sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia hautatu eta prestatzeko araudia onartzen duen Dekretua laugarren aldiz aldatzen duen azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan agertzen diren medikuntza-arloko bazterketen taulako kasuren batean.
- f) Ez izatea kondenatua doloeko delituagatik, ezta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia edo funtzio publikoak egiteko desgaitua edo etena ere; hargatik eragotzi gabe birgaitua izateko aukera, zigor- eta administrazio-arauen arabera.
- g) Armak eramateko eta, hala badagokio, erabiltzeko konpromisoa hartzea, eskatzailearen deklarazioaren bidez.
- h) Ez egotea baztertuta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoren batean edo Udaltzaingoko zerbitzuren batean sartzeko hautaketa-prozeduraren batetik falta astuna edo oso astuna egiteagatik, salbu eta preskripzio-epearen baliokidea den epea igaro bada, baztertzeko deklarazioaren egunetik zenbatzen hasita.
- i) Ez egotea sartuta desgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean, indarrean dagoen araudiaren arabera, praktiketako funtzionario izendapenak ondorioak dituen egunean.
- j) B motako gidabaimena izatea, mugarik gabeko turismoetarako, eta indarrean izatea eskabideak aurkezteko epearen azken egunean. Baimen hori une oro egongo da indarrean preskakuntza-aldiak eta praktikaldiak irauten duten bitartean, bide publikoetatik gidatzeko eskubidea baliogabetu, erretiratu edo kendu gabe, ez erabaki administratibo baten ondorioz, ez erabaki judizial baten ondorioz, ez puntu guztiak galdu izanaren ondorioz.
- k) Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak lortu nahi dituztenentzat, 2. hizkuntza-eskaki-zuna edo goragokoa izatea (Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa) edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea (deialdiaren hamargarren oinarrian xedatutakoaren arabera).
- l) Ordainduta izatea eskabidea jaso eta aztertzeagatik tasa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legean adierazitakoaren arabera eta 3.4 oinarrian xedatutakoarekin bat.

2.– Aipatutako betekizunak, aurreko paragrafoko k) apartatuan aurreikusitakoa izan ezik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira.

3.– Hautaketa-prozeduraren uneren batean, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian barne, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak jakiten badu parte-hartzailearen batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko betekizunak, berehala baztertuko da prozesutik pertsona hori, aurretik hari entzunda.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko modua:

Elektronikoki aurkeztuko dira hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskabideak, Enplegu Publikoaren Atariaren bidez, helbide elektroniko honetan:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/>

Horretarako, beharrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak onartutako bitartekoren baten bidez identifikatzea:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Eskabide elektronikoa aurkezteko baliabiderik izan ezean, Eusko Jaurlaritzako KZgunea zentro publikoetan egin ahal izango da eskabidea. Helbide honetan ikus daiteke KZguneen zerrenda eta kokapena: www.kzgunea.eus

2.– Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Eskabidearen edukia.

Eskabideko apartatu hauek bete beharko dira:

- Datu pertsonalak, prozesua behar bezala kudeatzeko (izena, abizenak, jaioteguna eta jaioterria).
- Harremanetarako datuak: posta-helbidea, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.
- Zer hizkuntza ofizial aukeratzen den, euskara ala gaztelania, oposizio-faseko ariketak egiteko.
- Titulazioa.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan emandako zerbitzuak, gehieneko adina konpentsatzeko.

4.– Tasa ordaintzea.

Bigarren oinarriko 1.l) apartatuan aurreikusitako betekizuna betetzeko, 20,27 euro ordaindu beharko dira, eskabidea jaso eta aztertzeagatiko tasa gisa, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Egoitza elektronikoko ordainketa-pasabidearen bitartez ordainduko da zenbateko hori:

<https://euskadi.eus/nireordainketa>

Bi aukera daude tasa ordaintzeko:

a) Offline ordainketa: finantza-entitate laguntzaileren baten bulego batera joan –Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa Gipuzkoa), Laboral Kutxa, La Caixa, Banco Santander, BBVA, Sabadell/Guipuzcoano, Bankia, Bankoa edo Iparkutxa– eta bertan ordaindu daiteke, sistemak emandako hartu-agiria edo jasotako datuak aurkeztuta.

Hartu-agiriekin barra-kodea dutenez, irakurgailu optikoa duen kutzazain automatikoaren bidez egin daiteke ordainketa, edo datuak eskuz eskuratuta.

Halaber, ordainketa-gutuneko QR kodea eskaneatu daiteke telefono mugikor batekin, eta automatikoki sartu ordainketa-pasabidera.

b) Online ordainketa: banku elektronikoaren sistemaren bidez ordaindu daiteke, finantza-entitate laguntzaileren baten banka elektronikoko bezero izanez gero.

Tasa epe barruan ordaintzen ez bada edo okerreko kantitatea ordaintzen bada, prozeduratik baztertuko da eskatzailea, deialdiaren bigarren oinarriko 1.l) apartatuan xedatutako betekizuna bete ez duelako.

Tasa aurkezteak eta ordaintzeak inola ere ezin izango du ordeztu eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezteko izapidea, oinarri honen aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera.

Laugarrena.— Betekizunak eta merezimenduak. Izangaiak onartzea.

1.— Parte hartzeko betekizunak betetzea eta merezimenduak alegatzea:

Betekizunak betetzeko eta baloratu beharreko merezimenduak alegatzeko erreferentzia-data, oro har, eskabideak aurkezteko azken eguna izango da.

Ez da beharrezkoa izango Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) jasota dauden datuak egiaztatzea.

2.— Betekizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak egiaztatuko ditu alegatutako betekizun eta merezimenduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroei kontsulta eginez, eta, horretarako, kontsulta egingo die administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformari edo ziurtagiria eman duen organismoari.

Kontsulta horiek kasu guztietan eta izangai guztientzat egingo dira, salbu eta jasota badago eskatzaileak berariaz eta arrazoituta aurka egin diola eta tratamendu-jardueraren ardura duen organoak aurkakotasun hori aintzat hartzen badu.

Eskatzaileren batek kontsultaren aurka dagoela agertuz gero (arrazoiak emanda), nahitaez aurkeztu beharko ditu aurka egindako kontsultaren xede diren dokumentuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko beste polizia-kidego batzuetan emandako zerbitzuak alegatzeko, egiaztagiria kopia soil bat aurkeztu beharko da.

Bosgarrena.— Onartuen eta baztertuen zerrenda.

1.— Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritzak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta helbide elektroniko honetan argitaratuko da:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/akademia>

2.— Behin-behineko zerrendan, baztertu bakoitza zergatik baztertu den adieraziko da, eta 10 egun balioduneko epea emango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egon litezkeen akatsak zuzentzeko. Epe hori ezin izango da erabili merezimenduak gehitzeko edo tasa ordaintzeko.

3.— Garaiz aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betiko egiten duen ebazpenean onetsi edo ezetsiko dira. Ebazpen hori hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

4.— Aurreko zerrendetan eta argitara emango diren gainerakoetan, NAN zenbakiaren bidez identifikatuko dira parte-hartzaileak (edo datuak babesteko indarrean dagoen araudi aplikagarriari buruzko gomendioak errespetatuz).

Seigarrena.– Hautaketa-prozesuaren garapena.

1.– Oposizio-lehiaketa izango da hautaketa-sistema. Oposizioa eta lehiaketa bata bestearen atzetik egingo dira, izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-hurrenkera finkatzeko.

2.– Oposizio-lehiaketako guztizko puntuazioa bi faseetan lortutakoaren batura izango da, eta horri gehituko zaio, hala badagokio, euskara ezagutzearen merezimendutzat ebaluatuko dena. Horrela zehaztuko da lehentasun-ordena izangaien artean.

Zazpigarrena.– Oposizioa.

Hautaketa-prozesu honetan nork bere borondatez hartzen du parte, eta parte hartze hutsarekin izangaiek adierazten dute berariaz eta zalantzarik gabe ematen dutela baimena proba eta ariketa psikoteknikoak egiteko, eta onartzen dutela proba horien emaitza beste balorazio-irizpide bat izango dela, oinarrietan aurreikusitakoarekin bat.

Oposizioan, ondoz ondoko proba hauek egin beharko dira:

1.– Lehenengo proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: proba psikoteknikoa izango da, eta izangaien gaitasun intelektualak ebaluatzea izango du helburu. Proba hau 0 eta 120 puntu artean baloratuko da, eta deitutako lanpostuaren profil profesionalari buruzkoa izango da.

Lau ariketa izango ditu probak, guztiak ere nahitaezkoak, eta 0 eta 30 puntu bitarteko balioa izango dute.

Ariketa bakoitzean, idatziz erantzun beharko zaio test motako galdera-sorta bati.

Test motako galdera-sorta bakoitzeko galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.

Ariketa bakoitzean, erantzun zuzen bakoitzaren balioaren 1/3rekin zigortuko da erantzun oker bakoitza. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Ariketak:

a) Arrazoitze-ariketa. Helburua: gizabanakoei arazo eta egoera konplexuak ebaztea, elementuen arteko erlazioak hautematea eta legeak sortzea ahalbidetzen dieten eskema kognitiboak ebaluatzea. Gaitasun deduktiboa aztertzea, aldez aurretik ezagunak diren proposizio jakin batzuetatik abiatuta, aldez aurretik ezagutzen ez diren ondorioak esplizituki lortzeko.

b) Pertzepzio-gaitasunei buruzko ariketa (identifikazioa, bereizketa...). Helburua: arreta eta behaketa ebaluatzea patroien bidez. Arreta jarraiturako eta xehetasunean kontzentratzeko gaitasuna ebaluatzea. Antzeko elementuak identifikatzeko eta elementu desberdinak bereizteko azkartasuna ebaluatzea.

c) Gaitasun espazialei buruzko ariketa. Helburua: errealitatearen analisia ebaluatzea, zehaztasunez hautemanez behatutako objektuen norabideak eta tamainak, haien erreproduzio mentala eta objektuok mentalki biratzeko gaitasuna. Objektuak ikuspegi guztietatik eta egoera desberdinetan ezagutzeko trebetasuna eta aldaketa espazial batzuei aurrea hartzeko gaitasuna ebaluatzea.

d) Hitzezko gaitasunari buruzko ariketa. Helburua: idatzizko materiala erabiliz arrazoitze indutibo eta deduktiborako trebetasunak eta gaitasunak ebaluatzea. Hizkuntza behar bezala erabiltzea. Argudioen analisia eta irakurketaren ebaluazio logikoa. Era berean, kontzeptuen arteko erlazioak eta hiztegiaren aberastasuna identifikatzeko gaitasuna ebaluatzea.

Proba hau gainditzeko, 60 puntu lortu beharko dira gutxienez lau ariketak batuta.

Hautaketa-sistema egokia izan dadin, eta betiere izangaiak zein diren jakin aurretik, proba gaititu ahal izateko gutxieneko puntuazio-atalasea zein den erabaki ahal izango du kalifikazio-epaimahaiak, eta erabaki hori jakinarazi. Erabakia hartzeko, aintzat hartuko ditu eska daitekeen gutxieneko maila eta proba honetan erakutsitako jakintza-maila. Kasu horretan, proba honetako puntuazioa lortzeko, arestian esandakoaren arabera, formula hau aplikatuko du kalifikazio-epaimahaiak:

$$IPB = (GehPB / 2) \times (1 + (ZP - a) / (GehZP - a)).$$

Hau da:

IPB = Izangaiak lortu duen puntuazio bihurtua.

GehPB = Probaren gehieneko puntuazio bihurtua (proba egitean lor daitekeen gehieneko puntuazioa, deialdiaren oinarrien arabera: 120 puntu).

ZP (Izangaiak lortu duen zuzeneko puntuazioa) = erantzun zuzenen kopurua – (akats kopurua x 1/3).

a = Proba gaititzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioaren atalasea (kalifikazio-epaimahaiak ezarrita).

GehZP = probaren gehieneko zuzeneko puntuazioa (proba egitean lor daitekeen gehieneko zuzeneko puntuazioa).

2.– Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: jakintza neurtzeko proba bat izango da, eta idatziz erantzun beharko zaio test motako galdera-sorta bati.

Probaren edukia ebazpen honen I. eranskinean adierazitakoaren arabera izango da.

Test motako galdera-sortako galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun zuzen bakoitzaren balioaren 1/3rekin zigortuko da erantzun oker bakoitza. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

Proba hau 0 eta 150 puntu artean baloratuko da, eta baztertuta geratuko dira, automatikoki, gutxienez 75 puntu lortzen ez dutenak.

Hautaketa-sistema egokia izan dadin, eta betiere izangaiak zein diren jakin aurretik, proba gaititu ahal izateko gutxieneko puntuazio-atalasea zein den erabaki ahal izango du kalifikazio-epaimahaiak, eta erabaki hori jakinarazi. Erabakia hartzeko, aintzat hartuko ditu eska daitekeen gutxieneko maila eta proba honetan erakutsitako jakintza-maila.

Kasu horretan, proba honetako puntuazioa lortzeko, aurreko paragrafoaren arabera, formula hau aplikatuko du kalifikazio-epaimahaiak:

$$IPB = (GehPB / 2) \times (1 + (ZP - a) / (GehZP - a)).$$

Hau da:

IPB = Izangaiak lortu duen puntuazio bihurtua.

GehPB = Probaren gehieneko puntuazio bihurtua (proba egitean lor daitekeen gehieneko puntuazioa, deialdiaren oinarrien arabera: 150 puntu).

ZP (Izangaiak lortu duen zuzeneko puntuazioa) = erantzun zuzenen kopurua – (akats kopurua x 1/3).

a = Proba gainditzeko behar den gutxieneko zuzeneko puntuazioaren atalasea (kalifikazio-epai-mahaiak ezarrita).

GehZP = probaren gehieneko zuzeneko puntuazioa (proba egitean lor daitekeen gehieneko zuzeneko puntuazioa).

3.– Hirugarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: proba psikoteknikoa. Proba hau 0 eta 100 puntu artean baloratuko da.

Bi ariketa izango ditu. Bi ariketak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira, eta lanpostuaren profil profesionalari buruzkoak.

Hirugarren proba horretako bi ariketetan lortutako datuak ondorengo probetan ere erabili ahal izango dira, neurketa-tresna gisa.

a) Nortasun-testaren ariketa, nortasun-ezaugarri orokorrak ebaluatzeko, bai eta izangai bakoitzak arlo emozional, sozial eta antolaketakoan lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko duen konpetentzia-maila ebaluatzeko ere; halaber, hautaketa-prozeduran parte hartzen duten pertsonen normaltasun-maila edo desbideratze-ezaren maila balioestea, patologia-kasu posibleak detektatzeko.

Proba hau 0 eta 50 puntu artean baloratuko da, eta baztertuta geratuko dira, automatikoki, gutxienez 25 puntu lortzen ez dutenak.

Ariketa hau baloratu ahal izateko, item guztiei erantzun beharko zaie: galderaren bat erantzun gabe uzten bada, baliogabetze-lerroan erantzuten bada edo bi erantzun idazten badira item berari erantzuteko, «0» puntuko emaitza lortuko da ariketan.

Ariketa zuzentzeko, izangaien anonimotasuna gordeko da.

Dimentsio eta eskala hauek aztertuko dira:

Egokitasun emozionala:

- Estresarekiko tolerantzia.
- Autokontrola.
- Bere buruarenganako segurtasuna.
- Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola.

Egokitasun psikikoa:

- Antsietatea.
- Depresioa.
- Etsaitasuna.
- Paranoidismoa.
- Histrionismoa.

Irudiaren distortsioa:

Egokitasun soziala:

- Adeitasuna.

- Soziabilitatea.
- Asertibotasuna.
- Lidergoa.
- Talde-lana.

Antolaketako egokitasuna:

- Arazoak konpontzea.
- Arauei kasu egitea.
- Malgutasuna.
- Betebeharraren zentzua.
- Ekimena.
- Plangintza eta antolaketa.
- Mugikortasuna.

Zuzenketa: Ariketa zuzentzeko, testa osatzen duten eskalen zuzeneko puntuazioak eskuratuko dira. Ondoren, zuzeneko puntuazioei, puntuazio-eskala konparagarri baten arabera baremoa ezarriko zaie (oro har, zentilak). Jarraian, 0 eta 1 puntu arteko balorazioa ematen zaio eskala bakoitzaren zentilari (eta irudiaren distortsioari buruzko adierazleari), deitutako lanpostuarekiko egokitasun-mailaren arabera. Azaldutakoaren arabera, gehienez 22 puntu lor daitezke testean. 21 neurketa-eskaletan eta irudiaren distortsioari buruzko adierazlean lortutako puntuen batukariak puntuazio bat banatzen du, eta, era berean, jarraian zehazten diren hamar egokitzen-mailak definitzen ditu:

Faktoreak edo eskalak (puntuak)	Egokitzen-mailak
≥ 21	10
≥ 19	9
≥ 17	8
≥ 15	7
≥ 13	6
≥ 11	5
≥ 09	4
≥ 07	3
≥ 05	2
< 05	1

Azkenik, deialdiaren oinarrietan ariketarako emandako puntuazioa esleituko zaie egokitzapen-mailei, taula honetan islatzen denari jarraikiz:

Egokitzapen-mailak	Azken puntuazioa
10	50
9	45
8	40
7	35
6	30
5	25
4	20
3	15
2	10
1	5

b) Nortasun-testaren ariketa, lan-jarduerarekin lotutako jokabideak neurtzeko, pertsonaren lan-jardunarekin lotutako portaera-joerak ebaluatuz, kategoriaren profil profesionalarekiko egokitasun- edo desbideratze-maila kontuan hartuta. Proba hau 0 eta 50 puntu artean baloratuko da, eta baztertuta geratuko dira, automatikoki, gutxienez 25 puntu lortzen ez dutenak.

Alderdi hauek aztertuko dira galdera-sortan:

- Bere buruarenganako konfiantza.
- Antolaketa eta plangintza.
- Arazoak ebaztea.
- Erantzukizuna.
- Antolaketarekiko sentsibiltatea.
- Erabakiak hartzea.
- Autokontrola.
- Presioarekiko tolerantzia.
- Asertibotasuna.
- Komunikazioa.
- Pertsonen garapena.
- Enpatia.
- Lidergoa.
- Gatazkak ebaztea.
- Talde-lana.
- Ekimena.
- Pentsamendu kontzeptuala.

Testean baloratzen diren faktoreak elkarren artean konbinatu eta haztatzen dira, hamabost faktore sortuz (desiragarritasun sozialaz gain). Faktore horiek zuzenean kuantifikatzen ditu testak, korrespondentzia-taula honen arabera:

Faktoreak eta adierazlea		Konpetentziak
ASE	Asertibotasuna	Asertibotasuna
COM	Komunikazioa	Komunikazioa
CON	Bere buruarenganako segurtasuna eta ezagutza	Autokontrola
		Bere buruarenganako konfiantza
		Enpatia
FRA	Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola	Autokontrola
		Presioarekiko tolerantzia
DIS	Diskrezioa	Autokontrola
		Erantzukizuna
EMP	Enpatia	Enpatia
ENF	Arazoei aurre egitea eta arazoak ebaztea	Gatazkak ebaztea
		Arazoak ebaztea
ESP	Talde-espirtua eta lankidetzatza	Talde-lana
		Lidergoa
EST	Egonkortasun emozionala	Autokontrola
ICD	Ekimena, erabakitzeko ahalmena	Ekimena
		Erabakiak hartzea
INT	Osotasun pertsonala / etikotasuna	Antolaketarekiko sentsibiltatea
		Erantzukizuna
PEN	Pentsamendu kontzeptuala	Pentsamendu kontzeptuala
ORI	Herritarrenganako orientazioa	Enpatia
		Pertsonen garapena
RES	Erantzukizuna	Erantzukizuna
		Plangintza eta antolaketa
TOL	Presioarekiko tolerantzia	Presioarekiko tolerantzia
DSO	Desiragarritasun soziala	Desiragarritasun soziala

Bi multzotan banatzen dira baloratu beharreko faktoreak: kritikoak eta adierazgarriak. Hau da:

Faktore kritikoak:

- Komunikazioa.
- Diskrezioa.
- Egonkortasun emozionala.
- Ekimena, erabakitzeko ahalmena.

Pentsamendu kontzeptuala.

Presioarekiko tolerantzia.

Faktore adierazgarriak:

- Asertibotasuna.
- Bere buruarenganako segurtasuna eta ezagutza.
- Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola.
- Enpatia.
- Arazoei aurre egitea eta arazoak ebaztea.
- Talde-espiritua eta lankidetzeta.
- Osotasun pertsonala / etikotasuna.
- Herritarrenganako orientazioa.
- Erantzukizuna.

Ariketa hau baloratu ahal izateko, item guztiei erantzun beharko zaie: galderaren bat erantzun gabe uzten bada, baliogabetze-lerroan erantzuten bada edo bi erantzun idazten badira item berari erantzuteko, «0» puntuko emaitza lortuko da ariketan.

Zuzenketa: Ariketa zuzentzeko, testa osatzen duten konpetentzien inguruko faktoreen zuzeneko puntuazioak eskuratuko dira. Ondoren, zuzeneko puntuazioei baremoa ezarriko zaie, faktoreak dekatipoen bidez banatzeko (0tik 10era). Gero, ondoriozko dekatipoak baloratuko dira, lanpostuaren profilarekiko duten desbideratze- edo egokitasun-mailaren arabera. Faktore kritiko bakoitza 0 eta 1,833333333 puntu artean baloratuko da. Faktore adierazgarri bakoitza 0 eta 1,222222222 puntu artean baloratuko da. Desiragarritasun sozialaren adierazleak 1,32 puntu ken ditzake gehienez. Puntuazio orokorra lortzeko, faktore bakoitzean lortutako puntuak batuko dira. Zehazki, puntuazio orokor horren gehieneko balioa, azaldutakoaren arabera, 22 puntukoa izango da. Izan-gai bakoitzak testean lortutako puntuazio orokorra (gehienez 22 puntu) 0 eta 50 puntu artekoa izatera aldatuko da, hiruko erregela aplikatuz.

Ariketa zuzentzeko, izangaien anonimotasuna gordeko da.

4.– Laugarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: gaitasun fisikoari buruzko proba. Proba hau 0 eta 80 puntu artean baloratuko da. Deialdiaren II. eranskinean deskribatzen diren lau ariketak egin beharko dira. Emaitzen balorazioa eranskin horretan bertan zehazten diren baremoen arabera egingo da.

Proba hau gainditzeko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez 10 puntu lortzea, eta gutxienez 40 puntu proba osatzen duten lau ariketen emaitzak batuta.

Ariketa fisikoak egitearen gaineko erantzukizuna parte-hartzaileena bakarrik izango da. Ariketak egiteko, bestalde, kirola egiteko ekipamendu egokia ekarri beharko dute.

5.– Bosgarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: elkarrikketa pertsonala. Helburua izango da neurtzea izangaiek jokabide eta konpetentzia egokiak dituzten deitutako lanpostuaren profil profesionaleko eginkizunak eta atazak betetzeko. Proba hau 0 eta 50 puntu artean baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Proba hau baloratzeko, III. eranskinean horretarako ezarritako baremoa erabiliko da.

Proba hau egin aurretik, prozesuan parte hartzen dutenek curriculum vitae sinplifikatu bat bete beharko dute. Ez da puntuagarria izango, eta elkarrikketa egiteko oinarri gisa baino ez da erabiliko.

Eredu normalizatu baten arabera bete beharko dute curriculuma, eta kalifikazio-epaimahaiak hala erabakitzen duenean izango dute eskuragarri eredu hori.

Zortzigarrena.– Oposizio-proben garapena.

1.– Probak ezin izango dira hasi deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bi hilabete igaro arte.

2.– Lehenengo proba egiteko eguna, ordua eta tokia gutxienez zazpi egun natural lehenago iragarriko dira, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez. Gainerako probak iragartzeko ondoz-ondoko iragarkiak ere hogeita batgarren oinarrian ezarritako eran jakinaraziko dira, gutxienez 72 ordu lehenago, eta kalifikazio-epaimahaiaren erabaki bidez.

3.– Kalifikazio-epaimahaiak eskumena izango du beste modu batean antolatzeko oposizioko probak eta gainerako ariketak egiteko hurrenkera –zazpigarren oinarrian ezarritakoa–, baita hainbat proba egun berean egitea erabakitzeko ere. Hala ere, proben edo ariketen emaitzak argitaratzeko, oinarri hauetan ezarritako ordenari jarraituko zaio. Gainera, proba edo ariketa baten emaitza argitaratzeko orduan, zazpigarren oinarrian azaldutako ordenari jarraituz aurrekoa gainditu duten izangaien emaitzak soilik argitaratuko dira.

4.– Epaimahaiaren deiaren arabera ezarritako ordu, egun eta lekuan nahitaezko probak edota ariketak garatzeko agertzen ez direnak automatikoki baztertuko dira hautaketa-prozeduratik, ez agertzeko arrazoiak ezinbestekoak izan arren. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko edozein proba edo ariketa hasita dagoela agertzen diren izangaiei.

Nahitaezko probaren batek ariketa bat baino gehiago baditu, nahikoa izango da horietako batera ez agertzea edo berandu agertzea proba guztian ez agertutzat jotzeko.

5.– Salbuespen bat egingo da oposizioko laugarren proba egiteko (gaitasun fisikoari buruzko proba). Izan ere, proba hori egitera deitutako parte-hartzailearen batek medikoki egiaztatzen badu haurdunaldian, erditzen edo erdiandoan dagoela, proba atzeratzeko eskatu ahal izango du.

Kasu horretan, bi aukera izango dituzte proba fisikoa egiteko:

a) deialdi beraren barruan egitea, baina beti elkarrizketa pertsonalak amaitu aurretik, edo, bestela,

b) hurrengo deialdira arte atzeratzea, nahitaez hartu beharko dutela parte deialdi horretan. Bigarren kasu horretan, hurrengo deialdirako gordeko dira gainerako probetan lortutako puntuazioak (lehenengoan, bigarrenean, hirugarrenean eta bosgarrenean), betiere proba horiei eragiten dien aldaketarik egin ez bada deialdian. Proba fisikoak ez diren gainerako probak egiteko edo puntuatzeko modua aldatu baldin bada, ezin izango dira kontuan hartu, eta izangaiak berriro egin eta gainditu beharko ditu. Hau da, probak gauzatzeko moduan eta puntuazioan inolako aldaketarik izan ez duten proben emaitzak baino ez dira gordeko.

Hautaketa-prozesuaren fase guztiak egin eta gainditu ondoren, dagokien izendapena lortuko dute, eta jatorrizko sustapenarekin mailakatuko dira, dagozkien ondorio juridiko eta administratiboekin. Hala ere, hautaketa-prozesua zein promozioarekin amaitu duen, promozio horrekin hautatuko da destinoa.

6.– Proba eta ariketetara, indarrean den nortasun-agiri nazional, pasaporte edo gidabaimena ekarri beharko da, kalifikazio-epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango baitu agiri horietakoren bat erakusteko.

7.– Proba baztertzaile bakoitza amaitu ondoren, kalifikazio-epaimahaiaren erabaki bidez, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenen emaitzak argitaratuko dira, hogeita batgarren oinarrian ezarritako eran, eta berariaz adieraziko da zer puntuazio lortu duten. Proba edo ariketen emaitzak hiru dezimal emanda argitaratuko dira.

Bederatzigarrena.– Lehiaketa.

1.– Oposizio-fasean gai kalifikazioa lortu duten pertsonen bakarrik aplikatuko zaie lehiaketa-faseko kalifikazioa.

Oposizio-fasea gainditu dutenen behin betiko zerrenda jasotzen duen erabakia argitaratzearekin batera, 10 egun balioduneko epea ezarriko da merezimenduak egiaztatzeko.

2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutako merezimenduak bakarrik ebaluatu ahal izango dira.

Alegatu edo egiaztatu ez diren merezimenduak ezin izango dira inola ere baloratu, ezta kontuan hartu ere.

3.– Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, eta bertan lortzen diren puntuazioak ezin izango dira kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko.

4.– Lehiaketa-fasean, gehienez 80 punturekin baloratuko dira merezimenduak, baremazio honen arabera:

4.1.– Titulazio eta diploma ofizialak baloratuko dira, eta Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak onartutakoak bakarrik hartuko dira halakotzat.

Gehienez 30 puntu emango dira, baremo honen arabera:

a) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 1. mailako titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 5. maila): 10 puntu.

b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 2. mailako titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 6. maila): 20 puntu.

c) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. mailako edo goragoko titulazio ofizialak (Kualifikazioen Europako Esparruko 7. maila edo goragokoa): 30 puntu.

Titulazio bakarra baloratuko da, eta, nolanahi ere, aurkeztutako titulazioetatik maila goragokoa duena izango da baloratuko dena.

4.2.– Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea. Agiri bidez egiaztatu beharko da hizkuntza horien ezagutza, eta IV. eranskinean jasotako ziurtagiri ofizialak bakarrik baloratuko dira. Apartatu honetan, 30 puntu eskuratu ahal izango dira gehienez, xehetasun eta maila hauen arabera:

a) Tarteko maila (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo baliokidea): 5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

b) Maila aurreratua (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa, edo baliokidea): 10 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza bera ezin izango da maila batean baino gehiagotan baloratu eta, beraz, maila handienekoa baino ez da kontuan hartuko.

4.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente gisa emandako zerbitzuak: 0,05 puntu emandako zerbitzu-egun bakoitzeko; gehienez 20 puntu.

Emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Administrazio publikoan emandako aurretiazko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskineko ereduari jarraikiz.

Hamargarrena.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea eta euskararen ezagutza-maila baloratzea.

1.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea.

Oposizio-fasea gainditu duten izangaiek agiri bidez egiaztatu ahal izango dute 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa dutela (Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo goragokoa), edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gaindituta dituztela.

1.1.– Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, kontsulta egingo da Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB). Erregistro horretan inskribatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira.

Ez da beharrezkoa izango agiri bidez egiaztatzea Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) jasota dauden datuak, baldin eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari baimen argia ematen bazaio erregistro horretan datu horiek kontsultatzeko.

Erregistro horretan jasota ez dauden euskararen ziurtagiriak edo tituluak dituztenek 9.1 oinarrian aurreikusitako epean eta moduan aurkeztu ahal izango dituzte egiaztagiriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hizkuntza-eskakizunen balioak diren ziurtagiriak eta tituluak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan daude ezarrita.

1.2.– Prozesuan parte hartzen duten pertsonen horretarako deitutako proba espezifiko bidez egiaztatu ahal izango dituzte hizkuntza-eskakizunak.

Horretarako, borondatezko proba bat edo batzuk egingo dira, eta haien zailtasun-maila bat etorriko da Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailarekin (2. hizkuntza-eskakizuna).

Proba hori edo horiek egiteko eguna, ordua eta lekua kalifikazio-epaimahaiaren erabakiaren bidez jakinaraziko dira, hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan.

2.– Euskararen ezagutza-maila baloratzea.

Ertzaintzako 1. hizkuntza-eskakizuna (administrazio 2. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea) nahitaezkoa ez duten lanpostuetarako izangaiei, 58 puntu emango zaie euskararen ezagutza-maila baloratzeko.

3.– Hautaketa-prozesu honen ondorioz lanpostu bat lortzen duten pertsonen dagokienez, baldin eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailari dagokion euskara-maila egiaztatu badute, edo maila hori aitortu bazaie, Ertzaintzaren hizkuntza-eskakizun baliokidea ere aitortuko zaie, bat etorri Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duen maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuarekin. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian eratu den Hizkuntza Eskakizunen Erregistroan inskribatuko da egiaztatze edo aitortza hori.

Hamaikagarrena.— Oposizio-lehiaketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluan xedatutakoa aplikatzea, emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten segurtasunaren zerbitzu publikoan.

1.— Oposizio-lehiaketako guztizko puntuazioa bi faseetan lortutakoaren batura izango da, eta horri gehituko zaio, hala badagokio, euskara ezagutzearen merezimendutzat ebaluatuko dena. Horrela zehaztuko da lehentasun-ordena izangaien artean.

Sailkapenaren hurrenkeran puntuazio-berdinketarik badago, berdinketa horiek ebazteko, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako irizpideak beteko dira. Hala ere, berdinketak bere horretan iraunez gero, oposizio-faseko bigarren proban puntu gehien lortu duenaren alde ebatziko da, eta, era subsidiarioan, euskararen jakintza baloratzeko proban puntu gehien lortu duenaren alde.

Hala ere berdinketak bere horretan badirau, lehentasuna izango du lehenengo abizenaren lehenengo letra funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuetan izangaien jarduketa-ordena ezartzeko egiten den urteko zozketa publikoaren ondoriozko letra duen izangaiak.

Kalifikazio-epaimahaiak zerrenda hauek onartu eta argitaratuko ditu:

a) Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda, dagozkien kalifikazioen arabera eta puntuazio-ordena ezarrita, derrigortasun-data igarota duten hizkuntza-eskakizuna betekizun duten lanpostuei dagokienez.

b) Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda, dagozkien kalifikazioen arabera eta puntuazio-ordena ezarrita, igarotako derrigortasun-data ezarrita ez duten hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagokienez.

2.— Behin-behineko zerrenda horren aurka, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Behin betiko zerrenda onartu aurretik ebatziko dira erreklamazio horiek.

3.— Epe hori igarotakoan, egiaztatu egingo da ea betetzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluan xedatutakoa, emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten segurtasunaren zerbitzu publikoan.

Aipatutako lege-testuaren 66. artikuluan aipatzen den ehunekoaren helburua ez bada lortzen aipatutako artikuluan xedatutakoaren arabera, emakumezko izangaiak lehenetsiko dira gizonezko izangaien aurretik, harik eta lortu nahi den helburua bete arte.

Ertzaintzan emakumeak sustatzeko planean 2026rako aurreikusitakoaren arabera, aurreko apartatuan aipatzen den lehentasuna aplikatuko da soilik baldin eta hautaketa-prozesu honen bidez lanpostua lortzen duten emakumeen presentzia ez bada iristen eskainitako plazen % 39ra, harik eta helburua lortu arte; baina, horretarako, hauek bete behar dira:

a) Gaitasunak baliokidea izan behar du; zeina zehaztuko baita hautaketa-sistemako oposizio-faseko probak eta ariketak gaindituta.

b) Lehentasun horri esker hautatutako emakumezko izangaien eta lehentasun horren ondorioz atzean geratutako gizonezko izangaien arteko puntuazio-aldea ezin da izan % 15 baino handiagoa oposizio- eta lehiaketa-faseetan.

c) Beste izangaiak ez du izan behar neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen lege-arrazoirik, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dauzkaten beste kolektibo batzuetakoa izatea, sexu-diskriminazioa eragiten duten arrazoiak izan gabe.

Hamabigarrena.— Hautatutako pertsonen zerrenda.

1.— Aurreko oinarrian ezarritako izapideak egin ondoren, epaimahaiak, hogeita batgarren oinarrian ezarritakoarekin bat, jarraian aipatzen diren zerrendak onartu eta argitaratuko ditu, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritzaren esku utziko.

Epe hori igaro eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak zerrenda hauek onartu eta argitaratuko ditu:

a) Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda, aurreko oinarrian ezarritako irizpideen arabera eta puntuazio-ordena ezarrita, derrigortasun-data igarota duten hizkuntza-eskakizuna betekizunak duten lanpostuei dagokienez.

b) Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda, aurreko oinarrian ezarritako irizpideen arabera, igarotako derrigortasun-data ezarrita ez duten hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagokienez.

2.— Betekizunak egiaztatzea.

Hautatutako pertsonak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian aurkeztu beharko dituzte betekizunak egiaztatzeko eskatzen zaizkien jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak; 15 egun balioduneko epea izango dute horretarako, kalifikazio-epaimahaiaren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera. Interesdunak eskatuta, eta ezinbesteko arrazoiak tarteko, epe hori luzatu ahal izango du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritzak, gehienez beste 10 egun baliodun emanaz.

Prozeduran zehar egiaztatu ezin izan diren agiriak baino ez dira aurkeztu beharko (izangaia berariaz aurka agertu delako edo laugarren oinarrian adierazitako erregistroetan ez dauden ziurtagiriak edo tituluak direlako).

3.— Betekizunak ez betetzea edo betetzen direla ez egiaztatzea.

Praktiketako funtzionario izateko hautatutako pertsonak ez dira izendatuko, baldin eta aurreko apartatuan adierazitako epean, edo, hala badagokio, luzapenean, dokumentazioa aurkezten ez badute, edo, dokumentazioa aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela betetzen alegatutako betekizunen edo merezimenduen bat.

Era berean, medikuntza-arloko bazterketen taula egiaztatzetik ondorioztatzen bada izangairen batek ez duela betetzen eskatutako baldintza edo betekizunen bat, ez da praktiketako funtzionario izendatuko.

Kasu horietan, ondoriorik gabe geratuko dira egindako jarduketa guztiak eta izendapena lortzeko eskuratutako eskubide guztiak, hargatik eragotzi gabe eskabidean datu faltsuak adierazteagatik izan lezaketen erantzukizuna.

Horrelakoetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak erabakiko du halako izangaiak hautaketa-prozeduratik baztertzea eta sailkapen-ordenaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz ordeztzea. Zehazki, aipatu bazterketaren ondorioz hautatuak direnek ordeztuko dituzte baztertutakoak, baldin eta aurretik egiaztatzen badute eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela.

Hamahirugarrena.— Praktiketako funtzionario izendatzea.

1.— Deialdiko betekizunak betetzen dituztela behar bezala egiaztatu duten hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak. Izendapen hori hogeita batgarren oinarrian ezarritako eran jakinaraziko da.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egoera horretan egongo dira prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte, edo hautaketa-prozesutik baztertu arte.

2.— Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa.

2.1.— Praktiketako funtzionario diren aldetik, sartu nahi duten kategoriako sailkapen-taldeari (Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente) dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien balio-kidea den ordainsaria ordainduko die Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak.

Prestakuntza-ikastaroa gainditu ondoren, praktiketako funtzionarioen egoera berari eutsiko diote, eta sartu nahi duten kategoriari dagokion ordainsaria jasoko dute, esleituta dauden lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriekin handituta. Ordainsari hori Segurtasun Sailak ordainduko du.

2.2.— Praktiketako funtzionarioei, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egiten duten bitartean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren barne-araubidea eta barne-araudia aplikatuko zaie. Halaber, diziplina-araubidearen arabera irakaskuntza arloko diziplina-hutsegiteak ez diren egoeretan, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen diziplina-araubidearen arauak aplikatuko dira.

Hamalauugarrena.— Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia.

1.— Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarriko da prestakuntza-ikastaroaren hasiera-data.

Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta baztertzailleak izango dira, banaka hartuta.

2.— Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia ezin izango dira aldi berean egin, eta ez horietako bakoitzaren iraupena, ez eta bien metaketa ere, ez da 30 hilabetetik gorakoa izango.

3.— Prestakuntza-ikastaroa.

a) Ikastaro akademiko bat izango da prestakuntza-ikastaroa, nahitaezkoa eta baztertzaillea, eta barnetegi-erregimenean egingo da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian. Ikasketa-planean zehaztuko dira ikastaroaren edukiak, ebaluatzeko zein gainditzeko moduak eta iraupena —ikastaroa hasi baino lehen onartu beharko da ikasketa-plana—.

Prestakuntza-ikastaroa barnetegi-erregimenean egingo da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, salbu eta neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten legezko arrazoiak badaude.

b) Ikastaroaren lehenengo egunean prestakuntza-ikastarora bertaratzen ez direnak automatikoki baztertuko dira, salbu eta behar bezala egiaztatzen bada ezinbesteko arrazoiak egon direla eta aldeztu aurretik eskatzen bada. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du ea ezinbesteko arrazoiak egon diren, eta hari dagokio horri buruzko ebazpena ematea.

c) Prestakuntza-ikastarora ez agertzearen ondorioz plazaren bat hutsik geratzen bada, hamabigarren oinarriko prozeduraren arabera plazarik adjudikatu gabe geratu den hurrengo pertsonari eskainiko zaio, eta hark beteko du baldin eta horretarako betekizunak betetzen baditu.

d) Baimen edo lizentziaren bat hartu nahi bada eta, ondorioz, prestakuntza-ikastarora joan ezingo bada, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian eskatu beharko da, baina aldez aurretik Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Ikasketen eta Plangintzaren Alorreko Ertzaintza-ren eta Udaltzaingoaren Arloko Burutzak baimendu beharko du. Prestakuntza-ikastaroan zehar lizentziak edo baimenak hartzeari dagokionez, zerbitzu-beharak daudela ulertuko da, baldin eta nahitaezko irakaskuntza-jardueraren bat badago programatuta.

e) Prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak ikasketa-planean ezarritakoaren arabera argitaratuko dira, akademiaren iragarki-tauletan eta sailaren Gurenet intranetean.

f) Prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez bada, hautaketa-prozeduratik baztertuko da; halaber, ikastaroa gainditu ez duenak galdu egingo ditu deialdian aipatzen diren Euskal Autonomia Erkide-goko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko eskubide guztiak.

g) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du presta-kuntza-ikastaroa gainditu ez dutenak baztertuta geratzen direla.

4.– Praktikaldia.

4.1.– Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute. Nolako jardun-arloan aritzen diren kontuan hartuta aukeratuko da praktikaldia egiteko zentro edo bulego egokiena, eta han prestakuntza integrala eskuratu eta Ertzaintzaren zerbitzu polizialen egitura eta jarduna ika-siko dute izangaiek.

4.2.– Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat emango du, honako hauek ezarriko dituenak: praktikaldiaren iraupena, hura baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikarako destinoak eta horietan has-teko data.

Ebazpen hori akademiaren iragarki-taulan eta sailaren Gurenet intranetean argitaratuko da.

4.3.– Praktikaldian, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategoriari dagozkion egitekoak betetzean izangaiek zer-nolako eraginkortasun profesionala duten ebaluatuko da.

Ebaluazioan, praktikaldiak iraun bitartean gertatutako egitateak baino ez dira aintzat hartuko.

4.4.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak emango du praktikaldiko kalifikazioen berri, akademiaren iragarki-taulan eta sailaren Gurenet intranetean argitaratuta.

4.5.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du praktikal-dia gainditu ez dutenak baztertuta geratzen direla.

Hamabosgarrena.– Prestakuntza-aldia edo praktikaldia ez amaitzeko edo horietatik baztertuta geratzeko arrazoiak.

1.– Prestakuntza-ikastaroa edo praktikaldia ez gainditzea, edo horietan ezgai kalifikazioa iza-tea, bai eta astuntzat edo oso astuntzat jotzen den arau-hauste bat egiteagatik diziplina-zehapen bat jasotzea ere, arrazoi espezifikoak izango dira hautaketa-prozesutik baztertzeko eta Ertzain-tzako agente kategorian sartzeko prozesutik eratorritako eskubide guztiak galtzeko.

2.– Era berean, prestakuntza-ikastaroan aplikagarri diren ebaluazio-irizpideekin bat etorritz, ikasketa-planean bildutako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada izangairen batek ezintasun materiala duela prestakuntza-ikastaroa gainditzeko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak prozesutik baztertzearabakiko du, ukitutako pertsonari entzun ondoren.

3.– Sarri joaten ez bada prestakuntza-ikastarora, ikasketa-planean aurreikusitako gehieneko denbora gaindituz, automatikoki baztertuko da hautaketa-prozesutik, salbu eta ezinbesteko arrazoiren bat egon bada. Halakoetan, interesdunak eskaera aurkeztu ahal izango du, eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak onartu beharko du.

4.– Sarri joaten ez bada praktikaldia, ebazpenean ezartzen den epea gaindituz, automatikoki baztertuko da hautaketa-prozesutik, salbu eta ezinbesteko arrazoiren bat egon bada. Halakoetan, interesdunak eskaera aurkeztu ahal izango du, eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak onartu beharko du.

5.– Baztertzeko arrazoiren bat agertzen bada, prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian ez da kalifikaziorik emango, harik eta irekitako baztertze-espedientea ebatzi arte.

6.– Prestakuntza-ikastaroa edo praktikaldia egin bitartean hautaketa-prozesutik baztertzen direnek armak, dokumentazioa eta jasotako ekipamendu guztia itzuli beharko dituzte.

7.– Ezinbesteko arrazoia dagoela adieraztea.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ikusten badu prestakuntza-ikastaroa egin bitartean ezinbesteko arrazoiren bat adierazi dela, eta betiere inguruabar hori duen pertsonak eskatzen badu, ebazpena emango du ezinbesteko arrazoi eragozleak ukitutako pertsonak osorik errepikatu ahal izan dezan ikastaroa, eskala eta kategoria berean sartzeko egiten den hurrengo edizioaren batean, behin inguruabar eragozleak amaitu direnean.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ikusten badu praktikaldia egin bitartean ezinbesteko arrazoiren bat adierazi dela, eta betiere inguruabar hori duen pertsonak eskatzen badu, ebazpena emango du ezinbesteko arrazoi eragozleak ukitutako pertsonak osorik errepikatu edo osatu ahal izan dezan praktikaldia, behin inguruabar eragozleak amaitu direnean.

8.– Izangairen batek borondatez uzten baditu prestakuntza-ikastaroa zein praktikaldia, edo ez bada prestakuntza-ikastarora joaten ikasketa-planean aurreikusitako gehieneko denbora gaindituz, prestakuntza horretan inbertitutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango dio Segurtasun Sailak, salbu eta ezinbesteko arrazoiak badaude karrerako funtzionario izendatu aurretik.

Hala, kontzeptu hauetatik eratorritako zenbatekoak erreklamatu ahal izango dira:

– Prestakuntza-ikastaroaren zenbatekoa (prezio publikoen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera).

– Prestakuntza-ikastaroan zehar ordaindutako ordainsariak.

– Prestakuntza-ikastaroan emandako ekipamendu pertsonalaren zenbatekoa.

Hamaseigarrena.– Medikuntza-arloko bazterketen taulara egokitzea.

1.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozeduraren edozein unetan egiaztatu ahal izango du izangaia ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia hautatu eta prestatzeko araudia onartzen duen Dekretua laugarren aldiz aldatzen duen azaroaren 22ko 142/2022 Dekretuan (2.1.e oinarria) agertzen diren medikuntza-arloko bazterketen taulako kasuren batean. Halaber, prestakuntza-ikastaroa edo praktikaldia egin bitartean edo horiek amaitzean, behar diren proba medikoak egin ahal izango zaizkie praktiketako funtzionario izendatutako pertsonen, medikuntza-arloko bazterketen taulara egokitzen diren egiaztatzeko.

2.– Horretarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak mediku-epaimahai bat izendatuko du, eta hogeita batgarren oinarrian ezarritako eran emango da epaimahai horren osaeraren berri.

3.– Mediku-epaimahai hori mahaiburu batek, bi mahaikidek eta idazkari batek osatuko dute. Epaimahaia osatzean, emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezatela zainduko da.

4.– Hautaketa-prozesutik baztertzeko arrazoiren bat baldin badago, arrazoiak azaldu beharko dira mediku-epaimahaiak ematen dituen txostenetan. Gainera, jarraitzen den prozedurak beti errespetatuko du ukitutako pertsonak entzuna izateko duen eskubidea.

Izangairen bat aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero proba medikoak egin behar zaizkion momentuan, mediku-epaimahaiak atzeratu ahal izango ditu proba mediko horiek, pertsonaren egoera aintzat hartuta.

5.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak adierazi beharko du ea izangairen bat prozesutik baztertu behar den medikuntza-arloko bazterketen taulan aurreikusitako arrazoiren baten ondorioz.

6.– Hogeigarren oinarrian jasotako arauak aplikatuko zaizkio oinarri honetan aurreikusitako mediku-epaimahaiari.

Hamazazpigarrena.– Bigarren oinarriko 1.f) apartatuko betekizuna.

Bigarren oinarriko 1.f) apartatuan ezarritako betekizuna egiaztatzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek baimena ematen diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari, Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralean eska dezan ziurtagiri bat, egiaztatzen duena izangaia ez dela izan kondenatua doloeko delituagatik, ezta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia edo funtzio publikoak egiteko desgaitua ere.

Baimen hori hautaketa-prozesuaren edozein unetan eskatu ahal izango da, idatziz eta izangaiak sinatuta.

Oinarri honen lehenengo paragrafoan adierazitako ziurtagiria lortu ezin bada, deialdia egin duen organoak izangaiei eskatu ahal izango die ziurtagiri hori aurkezteko, gehienez 10 egun baliodunek epean.

Hemezortzigarrena.– Ebatzi gabeko zigor- edo administrazio-prozedura.

1.– Hautaketa-prozesuan parte hartzen duen izangairen bat zigor- edo administrazio-prozedura batean sartuta badago, edo aurrerago sartzen bada, eta, horren ondorioz, litekeena bada doloeko delitu batengatik kondenatua izatea, administrazio publikoen kidegoren bateko zerbitzutik bereiztea edo funtzio publikoak egiteko desgaitua izatea, izangai horrek aukera izango du hautaketa-prozesuan parte hartzeko, horretan jarraitzeko eta dagokion kategorian sartzeko, baldin eta aipatutako prozeduretan kondenatzen ez badute edo zerbitzutik bereizten ez badute.

2.– Aurreko oinarrian aipatutako alderdiak edo bereziki intereseko jo litezkeen beste batzuk egiaztatze aldera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak zinpeko adierazpen bat aurkezteko eskatu ahal izango die halako izangaiei, hautaketa-prozesuan sartuta dauden bitartean.

Adierazpen horretan hautaketa-prozesua gainditzeko esanguratsuak izan daitezkeen datuak ezkutatu edo datu faltsuak emanez gero, barne-araubidean aurreikusitako erantzukizunak eragingo dira.

Hemeretzigarrena.– Hautaketa-prozeduraren behin betiko sailkapena, eta karrerako funtzionarioen izendapena.

1.– Hautaketa-prozedurako behin betiko sailkapen-hurrenkera ezartzeko, batu egingo dira hautaketa-prozesuan, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak. Hurrenkera hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez jakinaraziko da, akademiaren iragarki-taulan eta sailaren Gurenet intranetean argitaratuta.

2.– Praktikaldia amaitu eta bi hilabeteko epean, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko organo eskudunak karrerako funtzionario izendatuko ditu oinarri hauen arabera hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiak.

3.– Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente izateko izango da izendapena, eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duen otsailaren 11ko 37/2025 Dekretuan ezarritakoa aplikatuz, Segurtasun Saileko organo eskudunak esleituiko ditu ertzain berrien lehen destinoak, behin-behineko atxikipenaren bidez, kontuan hartuta txanda irekiaren bidez sartzeko prozeduren iraupena eta aribideko eta aurreikusitako lekualdatze-lehiaketako eta barne-sustapeneko prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 102. artikuluekin bat etorritik, hargatik eragotzi gabe deitzen diren behin betiko hornidura-prozeduretan parte hartzeko betebeharra, dagozkien kategorietan karrerako funtzionario izendatu ondoren. Atxikipen hori hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapen-hurrenkerari eta ukituen lehentasunei jarraituz egingo da.

Hogeigarrena.– Kalifikazio-epaimahaia.

1.– Oposizioko probak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko eta parte-hartzaileak hautatzeko, kalifikazio-epaimahai bat eratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko Legegintzako Dekretuaren aurreikuspenen arabera.

2.– Izendapena eta osaera.

2.1.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak izendatuko du kalifikazio-epaimahaia.

2.2.– Hau da taldearen osaera:

– Mahaiburu bat, lau mahaikide eta idazkari bat (hitzarekin baina botorik gabe), eta horien guztien ordezkariak.

– IVAPek proposatuta izendatutako pertsona bat; kalifikazio-epaimahaiko kidea izango da deialdian hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke ezarritako probetan.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez emango da argitara, hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan, zeinek osatzen duten kalifikazio-epaimahaia eta zein diren haien ordezkariak.

Inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-printzipioetara egokituta osatu behar da epaimahaia, bai eta emakume eta gizonen ordezkartza orekatura egokituta ere.

Kalifikazio-epaimahaiko kideak beti izango dira kide norberaren izenean, hau da, ezin dira kide izan inor ordezkatzuz edo inoren kontura.

Espezialitate-printzipioari jarraikiz, boto-eskubidea duten kide guztiek izan beharko dute sar-tzeko eskatzen den ikasketa-maila bereko edo goragoko titulazioa, eta kideen erdiek, gutxienez, jakintza-arlo bereko titulazioa.

Hauek guztiak ezin izango dira izan kalifikazio-epaimahaiko kide: hautaketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kon-tratudunak, ezta azken bost urteotan enplegu publikoan sartu nahi zuten izangaiak prestatzen ibili direnak ere.

2.3.– Abstenitzea eta errekusatzea. Kalifikazio-epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, arrazoi pertsonal edo profesionalengatik edo bestelakoengatik, euren inpartzialtasuna zalantzan egon daitekeen kasuetan, ezta indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako egoe-retan ere.

Kalifikazio-epaimahaia osatuko duten kideei Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Admi-nistrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan bildutako abstenitzeko eta errekusatzeko arrazoiak aplikatuko zaizkie.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean kide anitzeko organoetarako ezarritako funtzionamendu-arauen arabera jardungo du kalifikazio-epaimahaiak.

Epaimahaiakideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bai eta bertaratzeagatik ere, arlo horretako arautegiarekin bat etorritz.

Halaber, probetan zaintze- eta kontrol-lanak egiten dituzten langileek bidezko kalte-ordainak jasoko dituzte, indarreko arautegiarekin bat etorritz.

Kalifikazio-epaimahaiak garatu eta ebaluatuko ditu hautaketa-sistema osatzen duten probak, eta, zeregin horretan, autonomia funtzional osoz jardungo du. Horrez gainera, prozeduraren objek-tibotasunaren erantzule izango da, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.– Kalifikazio-epaimahaiak, hautaketa-sistemaren proba guztietarako edo batzuetarako, ahol-kulariak edo espezialistak erabil ditzake, haien espezialitateen barruan aholkuak eta laguntza tekniko eman ditzaten, eta ez beste ezertarako.

5.– Kalifikazio-epaimahaiak, hautaketa-sistema garatzeko, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenaren gainean egoki irizitako neurriak hartu ahal izango ditu. Halaber, oinarrioi buruzko interpretazio- eta aplikazio-arazoak ebatzi ditzake, eta bai bere funtzioak betetzeko sortzen diren arazoak ere.

6.– Idazkiak bide elektronikoz aurkeztuko zaizkio kalifikazio-epaimahaiari. Horretarako, inprima-kia bete edo dokumentua igo ahal izango da enplegu publikoaren atarian, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/akademia>

Kalifikazio-epaimahaiak ez ditu aintzat hartuko aipatutako postontzi elektronikoaz bestelako bitartekoen bidez bidaltzen diren erreklamazio, alegazio eta abarrak.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akade-miaren egoitzan izango du helbidea epaimahaiak.

7.– Kalifikazio-epaimahaiak ezingo ditu hautatu gisa deklaratu deialdiko lanpostuak baino izan-gai gehiago. Muga hori hausten duten proposamen guztiak erabat deusezak izango dira.

8.— Kalifikazio-epaimahaiaren erabakiak hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

Hogeita batgarrena.— Argitalpenak.

Hautaketa-prozesu honetan sortzen diren argitalpenak Euskal Enplegu Publikoaren Atarian egingo dira, helbide elektroniko honetan:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/akademia>

Hautaketa-prozesuan zehar, aipatutako helbide elektronikoan argitaratuko da prozesuaren alderdiekin lotutako informazio guztia, jakinarazpen-ondorioetarako.

Era berean, informazio hori eskuragarri egongo da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren webgunean.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan agertuko da argitalpen digitalaren inguruko iragarkia, jaulkipen-data adierazita.

Helbide elektronikoan argitaratzen den data erabakigarria izango da epeak zenbatzeko.

Helbide elektronikoan egiten diren argitalpen guztiak SMS bidez jakinaraziko zaizkie telefono mugikorraren zenbakia eman duten parte-hartzaileei. Abisua bidaltzen ez bada ere, guztiz baliozkoa izango da jakinarazpena.

Hogeita bigarrena.— Errekurtsoak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkara dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-eskumeneko arauak bete beharko dira —Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan daude jasota—.

Deialdi honetatik, epaimahaien jardueratik eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organoen jardueratik ondorioztatzen diren administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian ezarritako modu eta kasuetan.

Arkauti, 2025eko azaroaren 3a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
JON GURUTZ GOMEZ GOICOLEA.

I. ERANSKINA

GAI-ZERRENDAA

I.– Herritarren eskubideak.

1.– Giza eskubideak: Giza eskubideen alderdi orokorrak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Giza eskubideak babesteko Europako sistema.

2.– Eskubideak eta askatasunak, Konstituzioaren arabera: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak.

3.– 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena. Atariko titulua. I. titulua. Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantziak. II. titulua. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

4.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak. Gardentasuna eta informazioa. Eskubideak egikaritzea.

5.– 16/2023 Legea, abenduaren 21koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena. Xedapen orokorrak. Antolaketa eta araubide juridikoa. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren organoak. Ikertzeko ahala.

6.– 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketa-arau orokorrak.

7.– 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Osoarena. Xedapen orokorrak. Segurtasun-indar eta -kidegoen jarduketa.

8.– 2/2024 Legea, otsailaren 15koa, Haur eta Nerabeena. Atariko titulua. 150. eta 151. artikulua.

9.– 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko. Atariko titulua. II. titulua, I. kapitula. IV. titulua. Arau-hausteak eta zehapenak. Azken xedapenetako zortzigarrena

10.– 4/2024 Legea, otsailaren 15koa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. I. kapitula.– Xedapen orokorrak. II. kapitula, 9. artikulua. VIII. kapitula, 42. artikulua.

II.– Antolaketa politiko eta administratiboa.

11.– Europako esparrua: Europaren eraikuntzaren historia. Europako erakundeak eta haien eskumenak.

12.– Estatuaren lurralde-antolamendua Konstituzioaren arabera: Toki-administrazioa. Probintzia. Udalerria. Autonomia-erkidegoak.

13.– EAEko antolaketa politiko eta administratiboa: Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren aurrekariak eta sorrera. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren Atariko Titulua. Euskal Herriaren aginteak. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan bereganatutako eskumenak. EAEko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko eskumen-banaketa: alderdi orokorrak.

14.– Udalerria: Lurraldea eta biztanleria. Antolamendua. Eskumenak. Araubide bereziak.

15.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Administrazio publikoetako organoak: Administrazio-organok eta eskumena. Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak: Funtzionamendua. Abstenitzea eta errekusetzea.

16.– Toki-entitateen oinarriak: Ondasunen kontzeptua, toki-entitateen ondarea. Sailkapena. Araubide juridikoa. Toki-ogasunak: Diru-sarreraren sailkapena.

17.– 318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

III.– Administrazio-zuzenbidearen eta -prozeduraren iturriak.

18.– Administrazio-zuzenbidearen iturriak: Legea: kontzeptua eta motak. Araubidea: araudiak egiteko ahalmenaren titulartasuna eta haren mugak. Arauen hierarkia. Legezketasun-printzipioa administrazio publikoan.

19.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea: administrazio-egintza: alderdi orokorrak. Efikazia. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-isiltasuna.

20.– Administrazio-prozedura: interesdunak. Administrazio-prozeduraren faseak. Egintzen berrikuspena.

21.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Xedapen orokorrak. Zehatzeko ahalaren printzipioak Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.

IV.– Zigor-zuzenbidea. Zati orokorra.

22.– Zigor Kodearen atariko titulua. Zigor-bermeak eta zigor-legearen aplikazioa.

23.– Delituak (Zigor Kodearen 10. artikulutik 18.era).

24.– Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak (Zigor Kodearen 19. eta 20. artikulua).

25.– Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak (Zigor Kodearen 21. eta 22. artikulua).

26.– Delituei dagokienez erantzukizun kriminala duten pertsonak (Zigor Kodearen 27. artikulutik 30.era).

V.– Bide-segurtasuna.

27.– Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra: aplikazio-eremua (atariko titulua).

28.– Bide Segurtasunaren Legea: I. eranskina. Oinarrizko kontzeptuak.

29.– Bide Segurtasunaren Legea: Arau-haustek.

30.– Bide Segurtasunaren Legea: Zehapenak.

31.– Bide Segurtasunaren Legea: Erantzukizuna.

32.– Bide Segurtasunaren Legea: Zehapen-prozedura.

33.– Bide Segurtasunaren Legea: Zirkulazioko portaera-arauak.

34.– Bide Segurtasunaren Legea: Puntuak galtzea dakarten arau-haustek.

35.– Bide Segurtasunaren Legea: Gidatzeko baimenak.

VI.– Arriskuen prebentzioa.

36.– 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Xedapen orokorrak. Eskubideak eta eginbeharrak. Babes zibila: antolaketa eta eskumenak.

37.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: Xedea. Aplikazio-eremua. Eskubideak eta betebeharrak.

38.– Eraikinen ebakuazioa. Autobabes-planei buruzko hastapenak. Intzidenteari erantzuna ematea. Gutxieneko jokabide-jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Larrialdi-plana.

39.– Lehen laguntzak: lesioen lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bihotz-biriketako bizkortzea. Aire-bideen buxadura. Odoljarioak. Erreduren zaintza orokorra.

VII.– Euskal Herriaren historia, ingurune naturala eta demografia.

40.– Euskal Herriaren XIX. mendeko historia: konstituzio-aldia eta absolutismoa berrezartzea. Karlistaldiak: aurrekariak, bandoak, garapena eta ondorioak. Foruen abolizioa. Euskal nazionalismoa: sorrera eta garapena.

41.– Euskal Herriaren XX. mendeko historia: monarkiaren krisialdia. II. Errepublika. Gerra zibila, Autonomia Estatutua eta lehen Eusko Jaurlaritza. Frankismoa: errepresioa, erbesteratzea eta erresistentzia. Trantsizio demokratikoa.

42.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune naturala: erliebearen konfigurazioa, unitate morfoestrukturalak. Klima. Sare hidrografikoa. Itsasertza eta itsasoko ura. Landare-paisaia eta lurzorutak. Errepide-sarea. Trenbide-sarea. Portuak eta aireportuak.

43.– 2022ko panorama demografikoa. Biztanleria: eremu geografikoen arabera eboluzioa, egituraren eboluzioa herritarren adinaren eta sorlekuaren arabera. Jaiotzak: jaiotzen eboluzioa eta ugalkortasun-adierazleak. Heriotzak: heriotzen eboluzioa eta bizi-itxaropenaren eboluzioa. Ezkontzak: ezkontzen eboluzioa. Migrazioak: kanpoko migrazioak, barneko migrazioak eta migrazioarekiko erlazioa.

VIII.– Herritarren zerbitzurako polizia.

44.– Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren jatorria eta garapena: Ertzaintzaren jatorri historikoa. Gernikako Estatutuaren 17. eta 36. artikulua. 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena.

45.– 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.

46.– 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.

47.– 9/1983 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, Biltzeko eta manifestatzeko eskubidea arautzen duena.

48.– 168/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena garatzen duena.

49.– 57/2015 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Tokiko polizia-koordinaziorako batzordeen osaerari eta funtzionamendu-erregimenari buruzkoa.

IX.– Komunikazioa.

50.– Herritarrak, zerbitzu eta prestazio publikoen hartzaile. Jendearentzako informazioa eta arreta. Kexak eta erreklamazioak kudeatzeko teknikak.

51.– Komunikazioa administrazioan: administrazio-hizkera ez-sexistaren erabilera zuzena.

X.– Euskararen erabileraren normalizazioa.

52.– Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusia VI. plangintzaldirako (2018-2022): Plangintzaldi berrirako gidalerroak.

XI.– Genero-indarkeria.

53.– EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.

54.– 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. Osagai nagusiak.

II. ERANSKINA

GAITASUN FISIKOARI BURUZKO PROBA

ARIKETA: IGERIKETA, 50 m LIBRE

Azalpena: Izangaiak, igerilekuaren ertzetik abiatuta, uretara egingo du salto soinu-seinale bat entzuten duenean, eta 50 m egingo du igerian, hau da, bi aldiz 25 m-ko luzera.

Igeriketa-estiloa librea izango da. Ariketa egin ahala, estiloa aldatzea egongo da. Ezin izango da atsedean hartu oinak igerilekuko hondoa jarrita, ez eta hormari edo kortxo-ilareei helduta ere. Halaber, lehenengo luzerako bira ematerakoan, izangaiak esku batekin ukitu behako du horma, aztertzaileak argi ikusteko moduan.

Aurreko betekizunetako bat ez betetzeak ariketatik kanporatzea ekarriko du.

Irteera baliogabea izanez gero, oker egin duenak soilik gelditu beharko du. Serie guztiak amaitutakoan, azken serie bat egingo dute irteera baliogabea egin duten izangai guztiek. Bi irteera baliogabe egiten dituen izangaia kanporatu egingo da.

Betaurrekoak erabili ahal izango dira. Txanoa nahitaezkoa da.

IGERIKETA, 50 M LIBRE. BAREMOA

Gizonezkoak	Puntuak	Emakumezkoak
30"00 edo gutxiago	20,00	38"00 edo gutxiago
30"01 – 32"00	18,00	38"01 – 40"00
32"01 – 34"00	16,00	40"01 – 42"00
34"01 – 36"00	14,00	42"01 – 44"00
36"01 – 39"00	11,50	44"01 – 47"00
39"01 – 42"00	11,00	47"01 – 50"00
42"01 – 46"00	10,50	50"01 – 56"00
46"01 – 52"00	10,00	56"01 – 68"00


ARIKETA: AULKIKO PRESS-A

Azalpena: Aulki baten gainean, ahoz gora etzanda eta zangoak flexionatuta, oinak lurrean jarrita eta eskuak sorbalda baino zertxobait zabalago, (erpuaren hatz-mamiak ariketa egiteko erabiltzen den barraren alde leun eta latza ukitu behar du), besoak guztiz flexionatu barrarekin bularra ukitu arte eta, ondoren, guztiz luzatu.

Behin ariketa hasita, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako tokitik mugitu, ez oinak lurretik altxatu, ez eta gorputzaz konpentsatzeko mugimendurik egin ere. Betekizun horietakoren bat bete ezean, proba geldituko da, eta ordura arte zuzen egindako errepikapenak hartuko dira kontuan.

Ariketa egiteko, 35 kilografo altxatuko dute gizonezkoek, eta 25 kilografo emakumezkoek.

Nola neurtuko den: Ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren jasoaldiak (besoak guztiz flexionatu bularra ukitu arte eta besoak guztiz luzatu).



AULKIKO PRESS-A. BAREMOAK

Gizonezkoak 35 kg	Puntuak	Emakumezkoak 25 kg
50	20,00	40
49	18,00	39
48	16,00	38
45 – 47	14,00	34 – 37
42 – 44	11,50	30 – 33
37 – 41	11,00	26 – 29
31 – 36	10,50	21 – 25
22 – 30	10,00	12 – 20


ARIKETA: ARINTASUN-ZIRKUITUA

Azalpena: Izangaia irteerako jarrera altuan jarriko da irteera-marraren atzean, hau da, lehenengo hesia dagoen lekuan. Hesiaren ezkerretik zein eskuinetik egin ahalko da irteera, eta kasu bakoitzean dagokion ibilbidea osatu, marrazkian adierazi bezala.


Nola burutuko den: Aztertzaileak baimena ematen duenean hasiko da izangaia. Bandera urrunenera joango da, hura saihestu, hesirantz jo, hesia azpitik igaro, hurrengo bandera saihestu, eta bi hesiak gainetik pasatu. Azken hesia igarotzean erregistratuko da denbora, zelula fotoelektriko batzuen bidez.

Nola neurtuko den: Bi saiakera egin ahal izango dira, eta denbora-erregistrorik onena aukeratuko da baliozkotzat. Bi saiakera baliogabe egiten dituen izangaia kanporatu egingo da.

Izangaia zirkuituko elementuren bat (hesi zein bandera) bota edo lekuz aldatzen baldin badu, edota ibilbidez tronpatzen bada, baliogabetzat joko da saiakera.



Ibilbidea ezkerretik abiatuta



Ibilbidea eskuinetik abiatuta

Hesiaren azpitik

Hesiaren gainetik

ARINTASUN-ZIRKUITUA. BAREMOAK

Gizonezkoak	Puntuak	Emakumezkoak
8"40 edo gutxiago	20,00	9"40 edo gutxiago
8"41 – 8"57	18,00	9"41 – 9"57
8"58 – 8"79	16,00	9"58 – 9"79
8"80 – 9"05	14,00	9"80 – 10"07
9"06 – 9"37	11,50	10"08 – 10"41
9"38 – 9"79	11,00	10"42 – 10"87
9"80 – 10"26	10,50	10"88 – 11"38
10"27 – 11"05	10,00	11"39 – 12"25

ARIKETA: COURSE NAVETTE


Azalpena: Izangaia, marra baten atzean jarri, eta, soinu-seinale bat entzuten duenean, probari ekingo dio. Korrika egin beharko du beste aldeko marra zapaldu arte (20 m), eta beste soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du, lasterketari berriz ekiteko. Segida hori ariketa osoan zehar errepikatuko da.

Korrika egiteko erritmoa audio-gailu baten bidez erregulatuko da, soinu jakin bat tarte erregularretan igorrita.

Nola neurtuko den: Izangairen batek

- marra zapaltzen ez badu audio-gailuak hala adierazten duen unean,
- soinu-seinaleak markatzen duen erritmoa baino lehenago egiten badu aurrera,
- noranzkoa aldatzen badu marra zapaldu gabe,
- bira zirkularrak egiten baditu marraren gainean biratu beharrean,

lehenengo abisua jasoko du. Aurreko arrazoietako bat dela-eta bigarren abisu bat jasotzen badu, amaitutzat joko da ariketa, eta osatutako azken aldian izandako balioa hartuko da kontuan.



COURSE NAVETTE. BAREMOAK

Gizonezkoak Aldia	Puntuak	Emakumezkoak Aldia
13 ½	20,00	11
13	18,00	10 ½
12 ½	16,00	10
12	14,00	9 ½
11 ½	12,00	9
11	11,50	8 ½
10 ½	11,00	8
10	10,50	7 ½
9 ½	10,00	7

III. ERANSKINA

BOSGARREN PROBA. ELKARRIZKETA PERTSONALA

1.– Helburua eta metodologia.

Helburua: Ebaluatzea ea izangaiak jokabide eta konpetentzia egokiak dituzten deitutako lanpostuaren profil profesionaleko eginkizunak eta atazak betetzeko. Laburbilduz, egiaztatu behar da ea izangaiak betetzen dituen lanpostua behar bezala betetzeko behar diren betekizunak, ebaluatutako konpetentziei dagokienez.

Metodologia: Elkarrizketa mota horren esparru teorikoak aukera ematen du modu orekatuan banatzeko zenbait galdera mota, adibidez, jarraian adierazten direnak.

Egiaztagiriei buruzkoak: izangaiaren ikasketen, lan-historiaren, arrakasten eta porroten gaineko galderak dira. Esate baterako: Zer ikasketa burutu duzu? Non eta noiz egin zenituen ikasketak? Zer aintzatespen jaso duzu?

Esperientziari buruzko galderak: lan- eta lanbide-esperientziaren gaineko informazioa biltzeko. Esate baterako: Zer eginkizun zenituen azken lanean? Zein izan da esleitu dizuten erantzukizunik handiena? Zer egiteagatik zoriondu zintuzten? Nola konpontzen zenituen estualdiak? Zer-nolako pertsonekin izan behar zenuen harremana lan-kontuengatik?

Galdera hipotetikoak: Hainbat arlori buruzkoak izan daitezke, adibidez izandako lanei, lankide eta nagusiei, jomugei, etorkizunari eta bere buruari buruzkoak. Esate baterako: Zer helburu duzu datozen urteetarako? Zergatik interesatzen zaizu lanpostu hau? Zer esango liguke zure aurreko nagusiak zuri buruz galdetuko bagenio? Zein dira zure lan-bertute nagusiak? Zer iruditzen zaizu nagusi zorrotzegi batekin lan egitea?

Jokabidea deskribatzeko galderak: Horrelakoetan, iraganeko zein etorkizuneko jokabideei buruzko galderak sartzen dira. Hots: izangaiari galdetzen zaio ea nola jokatu zuen iraganean eta, era berean, galderak egiten zaizkio egoera jakin batean zer egingo lukeen edo arazo edo zeregin jakin bat nola konponduko lukeen jakiteko.

2.– Baloratuko diren konpetentziak.

2.1.– Ekimena, ekina izatea.

Prest egotea nork bere burua motibatuzko eta bide berriak urratzeko, lortu nahi den helburua lortu arte, edo behar den ahalegina eginez horretan tematzea zentzuzkoa ez den arte.

Prest egotea *motu propio* edo norberaren ekimenez mugitzeko interesgarritzat jotzen den helburu baterantz –polizia-lanbidea–; horrek berekin dakar buru-belarri bilatzea helburu hari buruzko informazioa eta itxaropen errealistak garatzea.

2.2.– Egonkortasun emozionala.

Egoera zailei aurre egiteko orduan, gaitasuna izatea lasai mantentzeko eta egonkortasun emozionalari eusteko, irizpide objektiboak aplikatuta, erantzun-ereduen arabera eta egoerekiko proportzionaltasunez, gogo-aldartean gorabeherarik izan gabe.

Presio handiko luzaroko egoeretan, gaitasuna izatea lasai egoteko eta eraginkortasunez funtzionatzeko.

2.3.– Erantzukizuna, etikotasuna eta diziiplina.

Fidagarria izatea lanean. Prest egotea eskatzen zaizkion edo bereganatzen dituen konpromisoak betetzeko eta horien ondorioak onartzeko. Betebeharraren zentzua eta diziiplina izatea, eta hierarkiari men egitea.

Gaitasuna izatea bidezkoa eta egokia denari egokituz jarduteko, oinarrizko printzipio etikoak eta legezkoak errespetatuz. Hitz egiteko eta jarduteko zuhurtzia, zintzotasuna eta zentzutasuna. Diskrezioa.

2.4.– Arazoei aurre egitea eta arazoak ebaztea.

Gaitasuna izatea arazoei neurrian aurre egiteko, gehiegizko dramatismorik gabe, baita gehiegizko axolagabekeriarik gabe ere.

Gaitasuna izatea erabakiak hartzeko, aukera jakin bat hautatzeko, nahiz eta zalantzaren eta arriskuaren jakitun izan.

Trebetasuna izatea egoera gatazkatsuak edo ziurgabetasuna dakartenak –denboran egokiak diren konponbideak behar izaten dituztenak– konpontzeko, eta horretarako behar diren baliabideak mobilizatzea.

Gaitasuna izatea ekintzak gauzatzeko eta eskatutako emaitzak lortzeko, eta horretarako behar diren baliabideak mobilizatzea.

2.5.– Asertibotasuna eta herritarrenganako orientazioa.

Gaitasuna izatea harreman adiskidetsuak sortzeko eta mantentzeko: enpatia- eta komunikazio-gaitasuna lan-harremanetan, pertsonen arteko harremanetan eta gizarte-harremanetan.

Trebetasuna izatea gainerakoekin modu eraginkorrean harremanak izateko. Gaitasuna izatea gainerakoen aurrean nork bere irizpide eta jarrerai eusteko, eta bere jarrera arrazoiz justifikatzean irmoa izateko.

3.– Garapena eta balorazioa.

* Garapena: Kalifikazio-epaimahaiak onartutako eta publiko egindako deialdiaren arabera egingo dira elkarrizketak. Elkarrizketa bakoitzak gutxienez 30 minutu iraungo du, eta teknikari (psikologo) batek egingo ditu, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ebaluazio Arloaren koordinaziopean.

Elkarrizketak egiten laguntzeko, izangaiak bete behar izan duten curriculum vitae sinplifikatua erabiliko da; hala ere, curriculum ez da puntuagarria izango.

Audio eta bideo formatuetan grabatuko dira elkarrizketak, salbu eta elkarrizketatuak berariaz uko egiten badio; kasu horretan, grabazioa ukatzeko adierazpen bat sinatu beharko du.

Izangaiak, elkarrizketa hasi aurretik, dokumentu bat irakurri eta sinatuko du: aurkezpena eta zinpeko adierazpena. Dokumentu horretan, elkarrizketaren aurkezpen orokorra egingo da, eta elkarrizketatuak konpromisoa hartuko du elkarrizketaren grabazio pertsonalik ez egiteko.

Aurretiaz zehaztutako elkarrizketa-gidoi baten arabera egiten dira elkarrizketak, baita galdera osagarrien eta euskarri-galderen gidoi baten arabera ere. Gidoia lanpostuaren profilaren eta ebaluatu beharreko konpetentzien arabera egongo da diseinatuta. Azpimarratu beharra dago, horrela, elkarrizketaren galderak eta garapena antzekoak izango direla elkarrizketatutako pertsona guztientzat, probaren izaera erdi-egituratua errespetatuta ere. Horrek ez du esan nahi pertsona guztiei galdera guztiak egin beharko zaizkienik; izan ere, galderak aldatu daitezke, izangaiaren curriculum vitaearen, izangaiak emandako erantzunen eta elkarrizketan sortutako egoeren arabera, besteak beste.

* Balorazioa: 0 eta 50 puntu artean baloratuko da.

Elkarrizketan baloratuko diren konpetentziak deialdiaren oinarrietan jaso eta agiri honetan zehaztu diren bostak dira, hauek, alegia:

- Ekimena, ekina izatea.
- Egonkortasun emozionala.
- Erantzukizuna, etikotasuna eta diziplina.
- Arazoei aurre egitea eta arazoak ebaztea.
- Asertibotasuna eta herritarrenganako orientazioa.

Bost maila ezarri dira baloratzeko ea izangai bakoitza zenbateraino egokitzen den ebaluatutako konpetentzia bakoitzera. Jarraian adierazi bezala baloratuko da dagokion konpetentziarekiko egokitzapen-maila bakoitza:

Egokitzapen-maila	Konpetentzia bakoitzeko maila	Puntuak
Eskasa	1	5
Ez Nahikoa	2	12,5
Nahikoa	3	25
Ona	4	37,5
Bikaina	5	50

Bost maila horietan, aldezturik zehaztutako jokabide-ainguraketak biltzen dira. Konpetentzia guztiak bost mailatan daude banatuta, eta jokabide-ainguraketak dituzte maila bakoitzerako. Jokabide-ainguraketak mailaka daude garatuta, kontuan hartuta izangaiak zer-nolako egokitzapen-maila duen lortu nahi den profilaerako: bikaina, ona, nahikoa, ez nahikoa edo eskasa.

1. maila: Egokitzapen-maila eskasa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak oso maila eskasa azaldu du ebaluatutako konpetentzian. Lanpostu horretarako egokitzapen-maila eskasa duenez, pentsatzekoa da ez dituela behar bezala beteko deialdiko lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, konpetentzia hori beharrezko izango duenean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

2. maila: Egokitzapen-maila ez da nahikoa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila eskasa azaldu du ebaluatutako konpetentzian. Lanpostu horretarako egokitzapen-maila ez denez nahikoa, ezin da bermatu behar bezala beteko dituenik deialdiko lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, konpetentzia hori beharrezko izango duenean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

3. maila: Egokitzapen-maila nahikoa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila egokia azaldu du ebaluatutako konpetentzian. Lanpostu horretarako egokitzapen-maila nahikoa duenez, pentsatzekoa da izangaia gai izan daitekeela behar bezala betetzeko deialdiko lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, konpetentzia hori beharrezko izango duenean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

4. maila: Egokitzapen-maila ona: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila ona azaldu du ebaluatutako konpetentzian. Lanpostu horretarako egokitzapen-maila nabaria duenez, pentsatzekoa da izangaia gai izan daitekeela behar bezala eta modu eraginkorrean betetzeko deialdiko lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, konpetentzia hori beharrezko izango duenean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

5. maila: Egokitzapen-maila bikaina: elkarriketa pertsonalean, izangaiak maila bikaina azaldu du ebaluatutako konpetentzian. Lanpostu horretarako egokitzapen-maila aparta duenez, pentsatzekoa da izangaia gai izango dela bikain betetzeko deialdiko lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, konpetentzia hori beharrezko izango duenean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

Jokabide-ainguraketa horien barruan, behatzeko moduko jokabide-multzoak biltzen dira, azterketako lanpostuarekin lotuta. Jokabide-multzo horiek konpetentzia jakin batean izandako jardunaren adierazle izango dira.

Elkarriketan lortutako erantzunak —erregistro-orrian eta bideo-grabazioan jasotzen direnak— elkarriketatzailleek erregistratutako jokabide espezifikoak izango dira. Esangura-mailaren, garrantzi-mailaren eta agerpen-maiztasunaren arabera, besteak beste, jokabide espezifiko horiek adieraziko dute izangaiak zer maila duen konpetentzia jakin batean, eta maila horri dagozkion jokabide-ainguraketetan islatuko dira.

Izangaiek, erakutsitako jokabide espezifiko esanguratsuen bidez, ainguratze jakin batzuk lortuko dituzte, eta ainguratze horietatik zuzenean ondorioztatuko da zer egokitzapen-maila duten konpetentzia bakoitzean.

Lortutako ainguraketak zehaztu ondoren, elkarriketatzailleek elkarriketen balorazioa idatziko dute izangai bakoitzaren banakako elkarriketaren kalifikazio-orrian.

Elkarriketa pertsonaleko ariketaren azken puntuazioa konpetentzia bakoitzean lortutako puntuen batez bestekoa eginez lortzen da.

IV. ERANSKINA

Hautaketa-prozesu honetan onartzen diren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 eta C1 mailetako tituluak eta ziurtagiriak

INGELESA

Igorlea	B2	C1
HEO	B2 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak	C1 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak
PTE	PTE Academic(59-75)	PTE Academic(76-84)
**Pearson Test of English	PTE General (LEVEL 3)	PTE General (LEVEL 4)
***Pearson Edexcel Certificate	Pearson Edexcel Certificate in ESOL International Level 1 (English International Certificate).	Pearson Edexcel Certificate in ESOL International Level 2 (English International Certificate).
Trinity College	ISEII	ISEIII
Cambridge	First Certificate in English(FCE	Certificate in Advanced English (CAE)
	IELTS (5.5/6.0/6.5)	IELTS (7.0/8.0)
	*LINGUASKILL (160- 179)	*LINGUASKILL (180+)
	BEC Business English Certificate-Cambridge (VANTAGE Good & Exceptional)	BEC Business English Certificate-Cambridge (HIGHER Good & Exceptional)
British Council	IELTS (5.5/6.0/6.5)	IELTS (7.0/8.0)
****British Council	*APTIS General B2	*APTIS Advanced C1
	*APTIS for teachers B2	
*****British Council	*APTIS ESOL General B2	*APTIS ESOL Advanced C1
	*APTIS ESOL for teachers B2	
Educational Testing Service	TOEFL (IBT): 87-109	TOEFL (IBT): 110-120
	*TOEIC C1 *(Listening and Reading 785-944) *(Speaking 160-179, Writing 150-179)	*TOEIC C1 *(Listening and Reading 945-990)) *(Speaking 180-200, Writing 180-200)
	*Oxford Test of English (OTE) 111-140	
Oxford		
Anglia Examinations	*ADVANCED	*Accept/ Proficiency
Language Cert	*ESOL (Level 1)	*ESOL (Level v2)
(Univ. de Michigan)	ECCE	

FRANTSESA

Igorlea	B2	C1
HEO	B2 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak	C1 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak
Frantziako Hezkuntza Ministerioa	DELFB2 (Diplôme d'Etudes en Langue Française)	DALF C1 (Diplôme Approfondi de Langue Française)
	TCF NIVEAU 4(B2) 400-499 pts	TCF NIVEAU 5 (C1) 500-599 pts
Chambre de Commerce et d'Industries de Paris	DFA1 (Diplôme de Français de Affaires 1)	DFA2 (Diplôme de Français des Affaires 2)
	DFP B2 (Diplôme de Français professionnel Secrétariat, Juridique, Médical)	DFP Affaires C1 (Diplôme de Français professionnel dans le monde des Affaires)
Alliance-Francaise	Diplôme de Lange Française (DL) (AF)	Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS) (AF)

ALEMANA

Igorlea	B2	C1
HEO	B2 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak	C1 maila edo horren pareko diren aurreko ziurtagiriak
Goethe Institut	Goethe Zertifikat B2	Goethe Zertifikat C1 (ZMP)
	Zertifikat Deutsch für den Beruf (ZDfB)	Prüfung Wirtschaftsdeutsch International (PWD)
Osterreichisches Sprachdiplom Deutsch(OSD)	Mittelstufe Deutsch (MD)	Oberstufe Deutsch (OD)
TestDaf-Institut	TestDaF-Niveaustufe 4	TestDaF- Niveaustufe 5
Deutsche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH)	DSH-1	DSD-2
Deutsches Sprachdiplom der Kultusministerkonferenz		DSD II
TELC	TELC Deutsch B2 +Beruf TELC B2 Schule	TELC Deutsch C1

* Trebetasun guztiak urtebetean gainditu beharra dakar.

** 2021eko abenduaren 31 baino lehen lortutako ziurtagiriak.

*** 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera lortutako ziurtagiriak.

**** 2022ko martxoaren 31 baino lehen lortutako ziurtagiriak.

***** 2022ko apirilaren 1etik aurrera lortutako ziurtagiriak.

Oharrak:

1.– Indarraldi jakin baterako emandako ziurtagiriak onartzeko, ezinbestekoa izango da ziurtagiria igorri duen entitateak ezarritako epe horren barruan egotea.

2.– Ez da onartuko etxean egindako azterketen ziurtagiririk (at home).